

SALBADOR ZAPIRAIN «Ataño».—*Zigorpean*. Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1985.

Gerra eta gerraondoari buruzko bigarren liburua da. Gerratoko kronika gisa idatzi direnetan, berrogei urtean, alde batekoak baizik ez dute izan zerbait idazteko aukera eta diktaduraz bukatzean ongi da bestaldekoetatik kontatzeko bizi direnak zerbait esatea eta hau izan da «Atano»ren bete beharra.

Bigarren liburu honek ez du lehenaren emozio hura, bizitza bera jokoan zegoenekoa, baina kartzelako oinazeaz aparte gauza harrigarriak kontatzen digu. Eta, berez, hein batean, *Espetxeko negarrak* zeritzanaren jarraipena da.

Ondarretatik Iruñeko San Kristobalera eramán zuten, eta zer zen bere harridura «Eliza zaitzera atera ziran auek, oraindik gizon iltzen ari baiziran» (70. orr. eta 83.en oraindik harriturik) sinets ezinik jarraituko zuen kapeillau baten predkiuak: «—Jainkoak gure lan onak eta txarrak astailuan pisatu ditu, eta txarrak askoz astunagoak ziran onak baño. Beraz, odol geiago dago ixuri bearra, Jainkoaren asarrea apaltzeko».

Bizaraingo San Markos eta Txoritokieta bitartean den Bordazarretik gazte mundura irtetzean bost urteko espetxea aurkitu zuen; beste mundurik ez, etxeko sukaldea, herriko maisua eta erretora, bere kondutaren etika eta moral markatzaile. Oraindik etzekin bakoitzak berari komeni zitzaion neurrira zeramala Ebangelioa, eta bi liburuotan nabari denez hortikakoak zituen bere gogoaren ezbeharrak.

Han zen, San Kristobalen, 1938ko maiatzaren 22ko ihesa gertatu zenean. Kapitulu hori du bizienetakoa. Hori eta horren ondotik datozen eraso eta ihesaren biharamuna. Ihesaren ondotik, afusillamenduez gainera neurri gogorak hartu zituzten. Hortaz zerbait bagenekin, han ziren zenbaiti ahoz

entzuna. Oroitzen naiz besteak beste, Fernando Zuloaga eibartar medikua (Inazio pintorearen iloba) preso zelarik bere ofizioa nolabait betetzen zuela eta zeldan zituen liburu guziak kendu zizkiotela. Bat baizik ezin omen zen eduki eta hauta zezala. Eskuarlean beharrezko zitzaion «Consultorio médico»-ren bi tomoak eskatu eta bat bakarrik eman, «*cuan-do lea el primero ya le daremos el segundo*» esanaz. Hala-koak ziren beren ustez zibilizazioa zekartenak. Ongi dio «Ataño»k: «Militar aien joera, jolasean dabiltzan umetxo batzuen uan. Zoritxarrez, umekeri gaixtoa».

Gerra bukatu ondorean, San Kristobaletik Orduñara; zorrtegi batetik bestera. Presondegri berri honetan, «arimazaiak» arduratsu misioak antolatzen, eta «Ataño»ren pentsamenez: «Emen, lenengo, gorputzari begiratu bear zaiok, ikusten danari alegia, ikusten ez dana salbatuko bada»; lojika horren arabera agertuko ditu bere eritziak bi liburuak zehar.

Libertatean jartzeak etorri ziren garaian ere politak dira bere kontaerak, gaileko bakar soil hura atera zenekoa adibidez, hainbeste denbora kartzelan eman ondorean nora joan etzekiela: «Nora joango nauk? Emaztea bi aurrekin utzita sartu niñun; geroztik beste bi jaio dituk». Edo, kartzelako bikario hark uste zuena, San Pedroetan askatasuna izango zutela agintzeaz, zeruko ate zaina bazen kartzelakoan ere ikustekorik izango zuela. Maila horretara jeisten bai zuten apostolua ere.

Kartzelatik irtetzean Orduñako geldokian artzai karlista bati entzuna ere ez zen txarra: «Zuek eta gu, beste katolikorik etzegok España'n». Hil da gero, salda bero.

